# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**4.445**

**582/2006 FORU AGINDUA, ekainaren 30ekoa. Kanpezuko udal planeamenduko ordezko arauen xedapen aldaketari buruzko espedientea, abeltzaintza ustiategien erabilerari dagokiona, behin betiko onartzea.**

AURREKARIAK

Lehena.- Kanpezuko Udalak 2004ko urtarrilaren 4an udal planeamenduko ordezko arauen aipatutako xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Horretarako iragarki bana argitaratu zen 2006ko martxoaren 3ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (26. zenbakia), 2006ko otsailaren 23ko “El Diario de Noticias de Álava” egunkarian eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2006ko apirilaren 5eko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espediente horri 2006ko apirilaren 25ean eman zioten sarrera Foru Aldundian.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeak, ekainaren 12ko 5/2005 bilkuran, espedientearen txostena egin zuen martxoaren 5eko 35/2006 Dekretuaren eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan xedatutakoari jarraituz. Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeek hirigintza arloko zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren esku uzteari buruzkoa da.

Laugarrena.- Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak espedienteari buruzko txostena eman zuen maiatzaren 23ko 6/2006 bilkuran, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengo. Espediente hau tramitatzen da udalerriko herrietako bizitegitarako hiri lurzoru mistoan dauden abeltzaintza instalazioak legeztatzeko. Horretarako, 142. (Santikurutzeko OD-R3 aldea), 143. (Santikurutzeko OD-R3I aldea), 150. (Antoñanako OD-R8 aldea), 155. (Orbisoko OD-R11 aldea), 158. (Oteoko OF-R13 aldea) eta 161. (Bujandako OD-R15 aldea) artikuluetan, ondoko testua sartu da:

“Lehendik zeuden erabilerak: oraingo ordezko arauak onartzean zeuden nekazaritza eta abeltzaintza baliabideak ekoizteko erabilerak bateragarriak izango dira, eta jarduera Osasun, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu, eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuan xedatutako markora egokitu behar da”.

Bigarren. Testua oso erraza den arren, zalantza batzuk azaltzen dira:

a) Lehenengo eta behin, testuan, “oraingo ordezko arauak behin betiko onartzean zeuden” baliabide batzuk aipatzen dira, beraz, ez dago argi zein den erabilera onartua ezartzeko mugaeguna zehazteko agiria: 1999ko abenduaren 31n onartu ziren ordezko arauak (araudia 2001eko abenduaren 12an onetsi zen) edo aldarazpen espedientea.

b) Lehen proposatu eta azaldutako testua irakurrita eta lehen onetsitako gainerako erabilerak kontuan izanda ondorioztа daiteke aldarazpenak abeltzaintza instalazioetan baino ez duela eragina, nekazaritzakoak gaur egun baimenduta baitaude.

c) 141/2004 Dekretuak, berriz, abeltzaintza ustiategien teknika, higiene-osasun eta ingurumen arauak ezarri zituen. Egin-eginean ere, arauak aldarazteko espediente horren helburuari dagokionez, dekretu hark ondoko baldintzak ditu jarrita:

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**4.445**

**ORDEN FORAL 582/2006 de 30 de junio. Aprobación definitiva del expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Campezo, referente al uso de explotaciones ganaderas.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 4 de enero de 2006, el Ayuntamiento de Campezo acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, número 26, de 3 de marzo de 2006, en el Periódico “El Diario de Noticias de Álava” de 23 de febrero de 2006 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 5 de abril de 2006, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 25 de abril de 2006.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 5/2006, de fecha de 12 de junio.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 6/2006, de 23 de mayo.

FUNDAMENTOS

Primero. El presente expediente se tramita con el objetivo de posibilitar la legalización de las instalaciones ganaderas preexistentes en el suelo urbano residencial mixto de las localidades del municipio. Para ello introduce en los artículos 142 (Zona OD-R3 de Santa Cruz), 143 (Zona OD-R3I de Santa Cruz), 150 (Zona OD-R8 de Antoñana), 155 (Zona OD-R11 de Orbiso), 158 (Zona OF-R13 de Oteo) y 161 (Zona OD-R15 de Bujanda) el siguiente texto:

“Usos preexistentes: Los usos de producción de recursos primarios agrícolas y ganaderos existentes en el momento de aprobación de las presentes Normas Subsidiarias, tendrán la consideración de usos compatibles, y deberán encuadrar su actividad en el marco de lo previsto en el Decreto 141/2004, de 6 de julio, de los Departamentos de Sanidad, de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente y de Agricultura y Pesca”.

Segundo. A pesar de la sencillez del texto transcrito varias son las interrogantes que plantea:

a) En primer lugar, en él se alude a unos usos “existentes en el momento de aprobación definitiva de las presentes Normas Subsidiarias”, lo cual provoca la duda sobre el documento que marca la fecha límite de la implantación del uso admitido: las Normas Subsidiarias que se aprobaron el 31 de diciembre de 1999 y cuya normativa fue publicada en fecha 12 de diciembre de 2001, o el presente expediente de Modificación.

b) También de la propia lectura del texto propuesto y transcrito y del resto de los usos ya permitidos, se deduce que la modificación sólo afecta a las instalaciones ganaderas, pues las agrícolas ya están autorizadas actualmente.

c) De otro lado, el Decreto 141/2004 establece las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medio-ambientales de las explotaciones ganaderas. En concreto, en lo que se refiere al objeto de este expediente de modificación de Normas aquél pone las siguientes condiciones:

1. Ustiategia dekretu hori indarrean jarri baino lehenagokoa izan behar da; izan ere, dekretua 2004ko irailaren 4an jarri zen indarrean.

2. Dekretuaren helburua lehenengo artikuluan definitu zen, eta bertan agertu bezala, abeltzaintza ustiategiek bete beharreko baldintzak definitu behar dira "Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrean xedatutako jarduera baimena lortzeko"; beraz, dekretu horren baitara biltzeko, ezinbesteko baldintza da ustiategiek jarduera baimena epe zehatz batean lortzea, hots, beharrezko agiri teknikoak landu eta kasuan kasuko tramitazioa egiteko arrazoizko epean.

3. Azkenik, dekretu horren 5.2. artikuluan honelaxe dago xedaturik:

"Halaber, nekazaritza-abeltzaintza ekoizpenerako joera garbia duten 1.000 biztanletik beherako herriguneetan dauden lehenagoko ustiategiak dekretu honen II. eranskinean adierazitako arau teknikoak, higienikosanitarioak eta ingurumenekoak bete beharko dituzte.

Hori hala bada ere, dekretu hau onartzen denetik 15 urtera edo zeinahi gorabehera dela-eta titulartasun aldaketaren bat gertatzen bada –artikulu honetako hurrengo paragrafoan salbuetsitakoak izan ezik–, atal honetako abeltzaintzako ustiategiek dekretu honen I. eranskinean adierazitako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak bete beharko dituzte, distantzia eta kokapenari buruzkoak salbu.".

Horren harira aipatu behar da dekretuaren arabera, Kanpezuko herri guztiak, baita Santikurutze ere, herriguneak dira, hortaz, lehendik zeuden instalazio guztiek dekretuaren II. eranskinean jarritako baldintza eta arauak bete beharko dituzte.

Hirugarren.- Aurreko oinarrian aipatutakoaren ondorioz, espedienteak aurrera egin dezake, baldin eta proposatutako testua honelaxe aldatzen bada:

1. Lehendik zeuden abeltzaintza instalazioak onartzeko mugaeguna zehaztu behar da, eta ondoko bietako bat izan behar da:

a- Ordezko arauen berrikuspena indarrean jarri zen eguna, hau da, 2001eko abenduaren 12a.

b- 2004ko irailaren 4a, hots, 141/04 Dekretua indarrean jarri zen eguna.

2. Nekazaritza ustiategien erabilerak kanpoan uztea.

3. Testuan agertu behar da lehendik zeuden nekazaritza ustiategietako instalazioak baimentzeko, beharrezkoa dela 3/98 Legean xedatutako jarduera baimena aurkeztea.

Ustiategiren batek ez badu baimen hori, berori lortzeko mugaeguna jarri beharko da. Ezarritako epean betetzen ez bada baldintza hori, instalazioak erabilera bateragarria izateari utziko dio, eta erabilera debekatu bihurtuko da.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Kanpezuko udal planeamenduko ordezko arauen xedapen aldaketari buruzko espedientea, abeltzaintza ustiategien erabilerari dagokiona, behin betiko onartzea, behin proposatutako araudian ondoko aldarazpenak sartuta; izan ere, udalerri horretako udalak proposatu eta tramitatu zuen espedientea.

1. Lehendik zeuden abeltzaintza instalazioak onartzeko mugaeguna zehaztu behar da, eta ondoko bietako bat izan behar da:

a- Ordezko arauen berrikuspena indarrean jarri zen eguna, hau da, 2001eko abenduaren 12a.

b- 2004ko irailaren 4a, hots, 141/04 Dekretua indarrean jarri zen eguna.

2. Nekazaritza ustiategien erabilerak kanpoan uztea.

3. Testuan agertu behar da lehendik zeuden nekazaritza ustiategietako instalazioak baimentzeko, beharrezkoa dela 3/98 Legean xedatutako jarduera baimena aurkeztea.

Ustiategiren batek ez badu baimen hori, berori lortzeko mugaeguna jarri beharko da. Ezarritako epean betetzen ez bada baldintza hori, instalazioak erabilera bateragarria izateari utziko dio, eta erabilera debekatu bihurtuko da.

1. Que la explotación sea anterior a la entrada en vigor del citado Decreto; cosa que se produjo el 4 de septiembre de 2004.

2. Por el propio objeto del propio Decreto, descrito en su artículo 1º, se trata de definir las condiciones que deben cumplir las explotaciones ganaderas "para la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/98, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco"; lo que quiere decir que es condición indispensable que para acogerse a este Decreto aquéllas han de disponer de la licencia de actividad u obtenerla en un plazo determinado que no debe ir más allá del tiempo razonable que cueste la elaboración de la documentación técnica precisa y la tramitación pertinente.

3. Finalmente, también el Decreto establece en su artículo 5.2 que:

"Las explotaciones ganadera ya existentes situadas en núcleos de población de menos de 1.000 habitantes que tengan una orientación productiva predominantemente agrícola-ganadera deberán cumplir las condiciones y normas técnica, higiénico-sanitarias y medioambientales contenidas en el Anexo II del presente Decreto.

No obstante lo anterior, una vez transcurridos 15 años desde la aprobación del presente Decreto o cuando por cualquier circunstancia se produzca un cambio de titularidad no exceptuado según el párrafo siguiente las explotaciones ganaderas contempladas en este apartado deberán pasar a cumplir las condiciones y normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales contenidas en el Anexo I de este Decreto, a excepción de las normas relativas a distancia y ubicación."

A este respecto señalar que según el propio Decreto, todas las localidades de Campezo, incluso Santa Cruz, tienen la consideración de núcleos de población, por tanto las instalaciones preexistentes deberán cumplir las condiciones y normas establecidas en el Anexo II del Decreto.

Tercero. Como consecuencia de lo señalado en el fundamento anterior el expediente puede prosperar si se modifica el texto propuesto en el sentido de:

1. Especificar la fecha límite para admitir las instalaciones ganaderas preexistentes que ha de ser una de estas dos:

a - La entrada en vigor de la revisión de las Normas Subsidiarias, o sea el 12 de diciembre de 2001.

b - El 4 de septiembre de 2004 que corresponde al día de entrada en vigor del Decreto 141/04.

2. Excluir los usos referentes a las explotaciones agrarias.

3. Especificar en el texto que para la permisión de las instalaciones de las explotaciones ganaderas preexistentes, será necesaria la presentación de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/98.

En el supuesto de que alguna explotación no la posea, se señalará también el plazo límite en el que deberá obtenerla. En el supuesto de que en ese tiempo fijado no se cumpla tal condición, la instalación perderá la condición de uso compatible y pasará a tener la consideración de uso prohibido.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Campezo, referente al uso de explotaciones ganaderas, formulado y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con las siguientes modificaciones a introducir en la normativa propuesta:

1. Especificar la fecha límite para admitir las instalaciones ganaderas preexistentes que ha de ser una de estas dos:

a - La entrada en vigor de la revisión de las Normas Subsidiarias, o sea el 12 de diciembre de 2001.

b - El 4 de septiembre de 2004 que corresponde al día de entrada en vigor del Decreto 141/04.

2. Excluir los usos referentes a las explotaciones agrarias.

3. Especificar en el texto que para la permisión de las instalaciones de las explotaciones ganaderas preexistentes, será necesaria la presentación de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/98.

En el supuesto de que alguna explotación no la posea, se señalará también el plazo límite en el que deberá obtenerla. Si en ese tiempo fijado no se cumpla esa condición, la instalación perderá la condición de uso compatible y pasará a tener la consideración de uso prohibido.

Bigarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete, eta beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabete izango da, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 30a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren zereginetan Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**4.498**

**583/06 FORU AGINDUA, ekainaren 30ekoa, Zambranako udalerriko Miranda-Industrial 3 izeneko linearen lurzatietan 30 kW-ko eta zirkuitu bikoitzeko airetiko linea elektrikoa eta goi-tentsioko lurrazpiko linea jartzeko baimena ematen duena.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Iberdrola SA enpresak Zambranako Udalari baimena eskatu dio Miranda-Industrial 3 izeneko linearen lurzatietan 30 kW-ko eta zirkuitu bikoitzeko airetiko linea elektrikoa eta goi-tentsioko lurrazpiko linea jartzeko. Lur horrek lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta “Nekazaritza balio bereziko eta substratu hauskorraren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona”-ren kalifikazioa du indarrean dagoen planeamenduko ordezko arauetan.

Bigarrena.- Zambranako Udalak espedientea bidali zuen Hirigintza Kudeatzeko Arautegiak 44. artikuluan baimena emateko agintzen duen izapidea betetzearren. Espedienteari arauzko txostena erantsi zitzaion.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Lehenengoa.- Sail honek eskumena du aztergai den espediente hau ebazteko, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 9/2005 Foru Dekretuarekin bat etorrita.

Bigarrena.- Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/98 Legearen 20.1 artikuluak xedatzen duenarekin bat etorrita, lurzoru urbanizaezinean baimendu egin daitezke interes publikoko jarduketa bereziak, baldin eta artikulu horretako 1. paragrafoan arautütako egoerak biltzen ez direla justifikatzen bada. Baimena emateko prozedura Hirigintzako Kudeaketaren Arautegiaren 44.2 artikuluan dago araututa. Horren arabera, ebazteko eskumena duen organoak hasierako onarpena eman behar du lehenengo, eta gero jendaurrean jarri behar da 15 egunez, eskatutako baimenari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik.

2006ko apirilaren 21ean espedienteari hasierako onarpena ematen zion foru agindua onartu zen, eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALera bidali zen, argitaratua izan zedin. 2006ko maiatzaren 19an argitaratu zen (55. zenbakia) aldizkari horretan. Bestalde, espedientearen aurka erreklamazioak aurkezteko arauzko 15 egunetan ez zen inongo alegaziorik aurkeztu.

Aztertzen ari garen kasu hau erabilera publikokoa edo gizarte interesekoa dela esateko, azpiegituraren helburuari begiratu diogu; izan ere, argindarrez hornitzea du helburu.

Landa lurretan jarri beharra, ordea, azpiegiturak berak dituen ezaugarriek eragiten dute.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.”

Lo que se publica para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2006.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos en Funciones de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**4.498**

**ORDEN FORAL 583/2006 de 30 de junio de 2006.“Otorgar autorización para la instalación de línea eléctrica aérea de 30 Kv y D.C. y línea subterránea de alta tensión en parcelas de la Línea Miranda-Industrial 3, del municipio de Zambrana.**

ANTECEDENTES

Primero.- Iberdrola, S.A. solicitó ante el Ayuntamiento de Zambrana licencia para la instalación de línea aérea de 30 Kv y D.C. y línea subterránea de alta tensión en parcelas de la Línea Miranda-Industrial 3, en terreno clasificado como no urbanizable y calificado como “zona de especial valor agrícola y zona agrícola de uso limitado sobre sustrato frágil” en las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento.

Segundo.- El Ayuntamiento de Zambrana remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizatorio que ordena el artículo 44 del Reglamento de Gestión Urbanística, incorporando el preceptivo informe.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- Este Departamento es competente para resolver el expediente que se examina de conformidad con el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 9/2005, de 1 de marzo.

Segundo.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 20.1 de la Ley 6/98, de 13 de abril, sobre régimen del suelo y valoraciones, podrán autorizarse en suelo no urbanizable actuaciones específicas de interés público previa justificación de que no concurren las circunstancias previstas en el apartado 1 del artículo. El procedimiento autorizatorio se regula en el artículo 44.2 del Reglamento de Gestión Urbanística, consistente en la aprobación inicial por el órgano competente para resolver y en el sometimiento a información pública durante 15 días, antes de adoptar la resolución definitiva acerca de la autorización instada.

Con fecha 21 de abril de 2006 se dictó Orden Foral por la que se aprobaba inicialmente el expediente, remitiéndose para su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, hecho que tuvo lugar en el número 55 de 19 de mayo de 2006, sin que durante el plazo de 15 días habilitado se haya presentado alegación alguna.

La utilidad pública o interés social en el supuesto examinado viene dado por la naturaleza de la infraestructura, la cual tiene por objeto el abastecimiento de energía eléctrica.

La necesidad del emplazamiento en el medio rural viene determinada por las características propias de la infraestructura.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,